

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

1366

EBAZPENA, 2015eko martxoaren 10ekoa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena; honen bidez, 2015-2016 ikasturtean ordezkogaiak kudeatzeko prozesuan –baita urtean zehar deitzen den edozein hautatze-prozesutan ere– alfabeto-hurrenkera zehaztuko duen letra zozketatuko dela iragartzen da.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren bitartez, onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko araudia. Agindu horrek ezartzen du berdinketa kasuak konpontzeko irizpidea abizenen eta izenen arabera hurrenkera alfabetikoa izango dela, eta urteroko zozketa baten bidez ebatziko da zein letratik hasi.

Halaber, letra horrek zehaztu egingo du zein hurrenkeraren arabera aukeratuko duten lanpostua ordezkogaiak, hau da, zozketa horretan ateratzen den letrak zehaztuko du nor izango den lehen ordezkogai ikasturtean zehar deitu daitezkeen edozein hautatze-prozesutan.

Horregatik guztiagatik, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Iragartzea 2015eko martxoaren 25ean, 10:00etan, zozketa bat egingo dela Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzan [Donostia kalea 1 (Vitoria-Gasteiz)]. Zozketaren helburua da zehaztea zein letra erabiliko den irizpide moduan berdinketa-kasuetan 2015-2016 ikasturtean. Izan ere, letra horrek zehaztuko du nork zein hurrenkera izango duen ordezkogaien zerrendan. Era berean, zozketaren emaitzak zehaztuko du zein hurrenkeran parte hartuko duten izangaiak ikasturtean egiten den beste edozein hautaketa-prozesutan. Horrela, bada, zozketa horretan ateratzen den letrak zehaztuko du nor izango den lehenengoa, abizenen eta izenaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko martxoaren 10a.

Langileriaren Kudeaketako zuzendaria,
KONRADO MUGERTZA URKIDI.